

## FELLOWS GIPUZKOA PROGRAMAREN 2018 DEIALDIA TALENTUDUNAK ERAKARTZEKO ETA EUSTEKO

### **Xedea**

2018ko deialdia egitea hautapen prozedura bidez nazioarte mailan garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu osteko formazioa jaso duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Gipuzkoako zentroetan sartzen laguntzeko

### **Diruz lagundutako jarduerak**

- a. **Talentudunak erakartzea:** Ekintza honen bidez, nazioarte mailako formazioa duten pertsonak erakarri nahi ditugu entitate onuradunen jardun esparruetan proiektuak gauzatzeko, eta gero, hurrengo fase batean, EAEko ikerketa talderen batean sartzeko. Ikertzaile horiek baldintza hauek beteko dituzte: doktoreak izango dira, eta doktoratu osteko formazioan arituak, dagokien esparruan nazioarte mailako garrantzia duen ikerketa talde batean. Ikertzailea kanpotik erakarri dela ulertuko da baldin eta azken hiru urteetan ez badu 6 hilabete baino gehiagoz lan egin Euskal Herrian.
- b. **Talentudunei eustea:** Ekintza honen bidez jarraipena eman nahi zaie, gehienez hiru urtez, Fellows Gipuzkoa Programaren bidez lagundu diren ikerlariei, ikerketa talde batean sartu arte.

### **Eskaerak aurkezteko modua eta epea**

Eskaeraren instantzia eta erantsitako dokumentazioa modu elektronikoan, informatikoan edo telematikoan aurkeztuko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez (<https://www.gfaegoitza.eus>), diru laguntzen atarira sartuta.

**Eskaerak aurkezteko epea 2018ko martxoaren 22an bukatuko da, 13:00etan.**

Eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztu behar dira:

- a. Erantzukizun aitortpena, eranskinean edo bide telematikoan egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena.
- b. Egiaztagiri administratibo positiboa, organo eskudunak emandakoa, egunean dagoela zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzakoetan ziurtatzen duena. Aipatu den dokumentazioaren ordez, aurkez daiteke eskatzaileak organo kudeatzaileari emandako berriazko baimena datu horiek administrazioetatik zuzenean lortzeko.

- c. Halakorik izanez gero, eskatzaileak edozein administraziori edo estatu zein nazioarte mailako entitate publiko nahiz pribaturi eskatutako edo haiengandik eskuratutako diru laguntzen, sarreraren edo baliabideen adierazpena, eskatutakoekin bateraezinak diren diru laguntzak jasotzen dituen.
- d. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatuta egotearen zuriaketa.
- e. Entitateak diru laguntza eskatzen dueneko denboraldian, ikertzailea kontratatzeke aurreikusitako aurrekontua.
- f. Kontratatuko den ikertzailearen CVa, 6.1.a) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.
- g. Ikertzailea sartuko den edo sartuta dagoen ikerketa taldeak egingo duen lanaren memoria, 6.1.b) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.
- h. Ikertzailea sartuko den edo sartuta dagoen ikerketa taldearen memoria, 6.1.c) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.
- i. Diru laguntza eskatzen duen entitatearen memoria, 6.1.d) oinarrian ezartzen diren baloratzeko irizpideak adierazten dituen.

### **Diru laguntzen zenbatekoa:**

Ikerlaria kontratatzeak eragindako gastuen %100 arte finantzatuko da, gehienez ere 50.000 euroekin lehenengo kontratazio urtean; %80 arte bigarren urtean, gehienez ere 40.000 euroekin; eta %70 arte hirugarren urtean, 35.000 euroekin gehienez.

### **Prozedura UPV/EHUn:**

Deialdi honetara aurkeztu nahi duen ikertzaileak jakinarazi beharko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus) helbide elektronikoaren bidez **martxoaren 12a arte**, harrera taldea zein izango den adieraziz, deialdiak eskatzen duen finantzaketa gain har dezan.

Ikerketaren aldeko errektoreordetzak egiaztatuko du nahikoa krediturik dagoen talde eta proiektuen atalean, finantzaketari aurre egin ahal izateko eta ikertzaile nagusia ados dagoen, baliatu beharreko funtsak helburu horretan baliatzeko.

**GARRANTZITSUA:** Harrera taldeak **bere egin beharko du kontratuaren kostu osoa**, bai eta laguntza hurrengo urteetan ematen ez bada ere, ikertzailearen jarraikortasuna bermatu beharko baita **deialdiak ezartzen dituen hiru urteetan zehar.**

### **Harremanetarako:**

#### **UPV/EHU:**

Tfno.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa:

[igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

#### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:**

Tfno.: 943 112 233

Helbide elektronikoa:

[msalustiano@gipuzkoa.eus](mailto:msalustiano@gipuzkoa.eus)